



# Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

*bizi ezazu*

# MED

Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 26

Urtea/Año 2014

Azaroa/Noviembre

## HITZALDI MUSIKALAK LIBURUTEGIAN

"Musika-tresnak artean" izenburuko lau hitzaldiz osaturiko zikloarekin, 2014-2015 ikasturtearen lehen hiruhilekoan Liburutegian burutuko den jarduerabillbide berri bati hasiera eman diogu; bere asmoa, publikoaren aberaste kulturala lortzea da, egintza musikala diziplina anitzeko alorretatik hurbilduz.

Oso proposamen erakargarriarekin hasi dugu: "Musika-tresnak artean". Urriaren 3tik eta azaroaren 14ra arte, txandakako ostiraletan, eta Fisika-zientzietan Doktore eta Musikene-Euskal Herriko Goinmailako Musika-zentroko Akustika Musikala eta Organologia-irakaslea den José M<sup>a</sup> Bretosen eskutik, antzinarotik gaur egunera arte musika-tresnak margolaritzan, eskulturari eta arte aplikatuetan irudikatua izan diren modu desberdinetaz gozatzeko aukera daukagu.

50 lagunetarako edukiera mugatuarekin, hitzaldi guztiak ari dira "erabateko bete" izaten, ezin izan ditugularik eskaera guztiak bete; horregatik, zikloa aurrerago errepikatzeo aukerari pentsatzen ari gara.

Bere garaian emango dizuegu datozen jardueren berri. Zuen iradokizunak jasotzeko prest gaituzue. Izan duten harrera bikaina eskertzen dizuegu eta esparru hau sendotzeko lanean jarraituko dugu, zuen kultura artistiko-musikala aberasten laguntzeko ustean.

## KONTZERTU DIDAKTIKOAK

*Aurreko alean iragarri genizuen, hilabete honetan hasiko dugu kontzertu didaktikoen zikloa. Goiz eta arratsaldeko saio bikoitzean, herriko ikastetxei eta gure ikasleei, kontzertu atsegini eta erakargarri baten bidez, musika-tresnen mundura hurbiltzeko aukera eskaintzen diegu. Funtsezko osagarria da musika-tresnen hastapenak jardueran eta beste laguntza bat datorren urterako musika-tresna aukeratzeko garaian. Hilero, azarotik apirilera, kontzertu bat eskainiko dugu musika-tresna familia bakoitzeko eta zikloa oso kontzertu bereziarekin itxiko dugu; honetan, Eskolako musikari txikiak jotako musika-tresna guztiak entzun ahal izango dituzue. Musika-tresnen hastapenak jarduera egin zein ez, musika onez gurekin gozatzeko aukera hau aprobeztatzera animatu nahi dizuegu. Hauek dira ikasturte honetarako datak:*

- Jazza Azaroak 10
- Haria Abenduak 2
- Haize-zura Urtarrilak 26
- Bertakoak Otsailak 25
- Haize-metala Martxoak 12
- Perkusioa Apirilak 22
- Itxiera Maiatzak 7

## AZAROA: "DIDI JAZZ"

"Didi Jazz" ikuskizuna: Jazzaren historian zehar egindako ibilaldia da, Missisippiren deltako eta New Orleanseko bluesetan jaio zenetik gaur egunera arte.

Manu Garciaeren eskutik dator; gidoigile eta aktore gisa, era atsegini eta dibertigarrian eta ikusle guztientzat, musika honen estilo garrantzitsuenen sorta zabaltzen du: rag, swing, be bop, cool, free, fusion...

Harekin batera, luxozko zazpikotea: Saxo altua, saxo tenorea, tronpeta, kontrabaxua, gitarra, pianoa eta bateria. Funk Collective taldea.

Aldi oro, publikoa, aktorea eta taldea elkar eragiten ari dira, ikuskizuna joan den mendeko Amerikako historia berrikusteko modu atsegina bihurtuz: esklabotza, arrazakeria, gangsterrak, asmakizunak (irratia, telebista, biniloa...). Eta hauekin batera, inprobisaziotik sortu eta mundu osotik entzuleen bihotzak irabaztea lortu duen musika baten eboluzioa.



# Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

*bizi ezazu*

# MED

Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 26  
Urtea/Año 2014  
Azaroa/Noviembre

## SANTA ZEZILIA

Azaroaren 22a da, ofizialki, gure zaindariaren eguna. Larunbata denez, jaia ostiral 21era aldatu dugu. Egun horretan ez da eskolarik izango eta Eskola itxita izango da. 20an izango dugu ospatzeko entzunaldia. Gonbidatuta zaudete. Azken urteetan bezala, entzunaldi honetan gure zuhaitz solidarioa piztuko dugu. Bere hirugarren urtea izango da.

Ba al zenekien Santa Zezilia, Erromako Zezilia, kristaua bihurtutako noble erromatarra zela eta, tradizioaren arabera, 180 eta 230 urteen artean, bere fedea zela eta, martirizatua izan zela?

Eliz katolikoan, hainbaten Zaindaria da: musikariena, poeta, itsuena (Siracusako Santa Luziarekin batera) eta Frantziako Albi, Estatu Batuetako Nebraska Estatuko Omaha eta Argentinako Mar del Plata hirietakoa.

Bere ikurrak, organoa, lautea eta arrosak dira.

Bere ohorez, XIX. mendeko eliz-musika katolikoa eraberritzeko mugimendu garrantzitsu bat Cecilianismo izenaz izan zen ezagutua.

## BEÑAT MARDARASEN ALDEKŌ ŌNGINTZAZKŌ KŌNTZERTUA

Gogoan izango duzuenek, joan den urriaren 10ean, arratsaldeko zortzietan, gure Eskolako Musika-bandak eta Biotz Alai Abesbatzak ongintzazko kontzertua eskaini zuten Salbatzailearen elizan. 1800 €tik gora bildu ziren. Beste urrats solidario bat Beñat osatzen laguntzeko. Badařigu bide onetik doala sendaketa. Animo, Beñat! Laster ikusiko dituzu zure ametsak egi bihurturik! Besarkada bat Musika Eskolatik.

## JARDUERAK

*Joan den urriaren 18an, Atxuriko Gizakunde elizan, Bilbon, gure Eskolako txistulari talde batek, "Andrés Isasi" Akordeoi Hirukoteak eta perkusionista batek, Bilboko Jatorki Abesbatzak antolatutako XVII Agiña Memorialean parte hartu zuten. Pablo Sorozabal egile euskaldunaren eta Karl Jenkins irlandarraren lanak interpretatu zituzten. Hirurehun pertsonatik gora bildu ziren errezitaldi hau entzuteko eta gogotsu zoriondu gintuzten eskainitako saioagatik.*

## Hileko egutegia

Azaroa

a	a	a	o	o	i	i
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

■ Jai-egunak

■ Eskolako jarduerak

■ Jarduerak jai-egunetan

## Agenda Azaroa

**Azaroak 8:** Kantu eta piano-errezitaldia. Eider Torrijos eta Mario Lerena. 19:30ean Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera: 5 €.

**Azaroak 10:** Jazz-kontzertu didaktikoa. 11:00etan ikastetxeetarako.

17:45ean Musika Eskolako ikasleentzat eta gainerako publikoarentzat. Eskolako Entzunaretoan.

**Azaroak 14:** "Musika tresnak artean" hitzaldi-zikloa. Eskolako Liburutegian. 19:00etan. Sarrera librea, erreserbapean.

**Azaroak 17:** Biolin eta biola-ikasleen errezitaldia, 19:00etan, Musika Eskolako Entzunaretoan.

**Azaroak 20:** Santa Zezilia eguneko errezitaldia. 19:30ean, Musika Eskolako Entzunaretoan.